

UKRAINARI buruzko adierazpen instituzionala

2022ko otsailaren 24an Errusiak Ukrainari eraso egitea erabaki zuen. Herrialdearen ekialdeko eta hegoaldeko hiri gehienak eraso zituzten, bereizketarik egin gabe, biztanleria eta azpiegitura zibilen kontra ere eginez.

Giza eskubideen zapalketa erabatekoa izaten ari da. Milaka hildako eragin ditu dagoeneko gerra honek eta baita milioika errefuxiatu ere. Mariupol hiria gaur egungo Gernika bihurtu da, erabateko ankerkeria eta suntsiketaren ikur.

Horren aurrean, Debako Udalak 7.000€-ko diru-laguntza bideratu du Gizarte Zerbitzuetako batzordetik; eta Debara etorri diren familiei harrera egin zaie, baita eskoletan zein Musika eta Dantza eskolan ere.

Hau guztiagatik, Debako Udalak ondokoa adierazten du:

1. Estatu subirano baten aurkako gerra-egintza hauen aurrean bere arbuio sakonena erakusten du.
2. Vladimir Putini inbasioa berehala eteteko eta tropa guztiak Errusiara itzultzeko eskatzen dio, eta Errusiari zein Ukrainari deia egiten die Minskeko akordioetara itzultzeko.
3. Ukrainari eta hango herriari erabateko elkartasuna eta estimua adierazten die. Bizien galera deitoratzen du, eta atsekabe sakona agertzen du, biktimengatik eta herritarren alferrikako sufrimenduarengatik. Sentimendu hori Deban bizi den komunitate ukrainarrari ere helarazi nahi dio.
4. Diplomaziara itzultzeko eskatzen du, bakea eta giza eskubide guztien errespetua berrezartzeko eta ondorio suntsitzaile gehiago saihesteko.
5. Ukrainak estatu libre eta demokratiko bat izaten jarraitzeko, nazioarteko eragileei ukrainar herriari beharrezko laguntza eskaintzeko eskatzen dio.
6. Europa barneko gerra bat dela kontuan izanik, Bigarren mundu gerratik Europan bizi izan dugun errefuxiatu krisialdi larrienera baten aurrean gaudela ikusita, Debako Udalak bere konpromisoa adierazten du egoera guztiz zaugarrian dauden pertsona hauei laguntzeko.
7. Debako Udalak Larrialdi Humanitariorako baliabide materialak eta ekonomikoak jarriko ditu gure herrian burutzen ari diren ekimenekin bat eginda.

Deban, 2022ko maiatzaren 4an.